

BOOBIZI

Funtsezko elkarteak

Boobizi konpainian parte hartzen duten lau bazkide zoragarri gara. Lau gazte gara, laurok emakumeak, eta erdi mailako klasekoak. Horregatik dakigu, batez ere Covid-19-aren ostean, emakume guztiek ezin dutela hainbat diru gastatu bularretako batean. Guk, pertsonalki, ez genuke diru asko gastatuko bularreko batean, beharrezkoa izan arren. Hala ere, estatistikak ikusita, probabilitate handia dago gutako norbaitek bularreko minbizia izateko eta funtsezkoa aurkitzen dugu, hain hurbila den gaia izanda, zerbait eskaintzea egoera nolabait hobetu ahal izateko.

Proiektu honetan gutako bakoitzak zerbait eskaini ahal dio taldeari. Esaterako Raniak bere komunikatzeko gaitasun itzelengatik egokia litzateke hornitzaile zein bezeroekin harremanetan jartzeko; Annek txikitatik josteko zaletasuna izan duenez badaki zein material eta lehengai egokiagoak diren produkturako eta gainera, bere josteko ahalmena bikaina izanez jostunen-buru izan liteke; Oihanek jadanik lan egin duenez merkatu-munduan mugitzen daki eta sen ona ere duenez gure enpresarako aproposenak diren langileak aukeratzen jakingo luke; azkenik, Ainarak logoaren eta boobizi webgunearen diseinuaz arduratuko litzateke, bere sormen gaitasunak direla eta. Halaber, denak ekonomiarengainean jakintzak ditugu eta horrek, adibidez, finantza edo estrategietan erosotasun apur batekin jardutea ahalbidetzen digu. Bestalde, gazteak izanda ez dugu zailtasun handirik sare sozialak maneiatzen eta eguneratuak izaten.

Nolanahi ere, badakigu ezin dugula guk bakarrik proiektua aurrera eraman eta horregatik, gure ideiarekin konprometitutak eta animatutak diren pertsonekin lanean aritzea gustatuko litzaiguke. Izan ere, biziak diren gizakiak behar ditugu boobiziri bizitza emateko.

Ondorioz, gutaz gain enpresan parte hartuko luketenak honako hauek izango ziren, besteak beste:

- Langileak: Gure enpresan edozeinek lan egiteko aukera izango duen arren, lehenetsuna emango diegu bularreko minbizia izan duten emakumeei. Uste dugu modu horretan ez geniekela soilik gure produktuarekin lagunduko, baita lana eskainiz ere laguntza ekonomikoa emango genieke. Gainera, ez

zaigu inork hobeto bururatzen gaixotasun zorigaizto hau pairatu duten emei irribarre bat sorrarazteko eta gizarteak kontuan dituela sentiarazteko.

- Hornitzaileak: lekukoak izango dira; batez ere, lekuko mertzeriak, barne-produktua eta enpresa txikiak sustatzeko asmotan. Adibidez, *Kiloka-ri*, Gasteizko enpresa bat, oihalak erosi ahal dizkiegu.
- Onartzekotan, enpresaren %5-a minbiziaren erakunde batena, AECC-rena izango da. Erakunde honek ekonomikoki lagunduko digu, gure proiektua hasteko behar dugun diruaren zati bat eskainiz eta noski, arriskuak murrizteko. Horrez gain, publizitatea ere egingo digu, eta honek bezero gehiago erakartzen lagunduko gaitu. Gainera, bakarrik %5-a denez, enpresaren kudeaketa gure esku izaten jarraitzen du.
- Esandako guztiaz aparte, oihal soberakinak birziklazio erakunde bati (*Ecotextil*, Espainiako erakunde bat) emango dizkiogu, haiek kudea dezaten. Horrela ingurumenari ere laguntzen ariko ginen.